

NOLA ARGITARATU HAUTESKUNDE-KANPAINEI BURUZKO INFORMAZIO ETA IRITZI EZ-SEXISTAK

- Hauteskunde-kanpainen informazio-trataeran erabilera sexistak antzemateko eta saihesteko gomendioak.

Gomendioak, erantsitako dokumentuan ageri baitira, azterlan hauen emaitza nagusietatik hautatu eta hartu dira: “Sexismoa Europako 2014ko hauteskundeei egindako publizitate eta informazio tratamenduan. Sexismoa antzemateko tresna”, “Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa Euskadin” eta “Komunikabideentzako auto diagnosirako tresna (kontrol zerrenda)”. Gerora, egoitza EAEn duten komunikabide publiko eta pribatuekin prestatu eta kontrastatu dira, lankide izan direla genero-ikuspegidun komunikazioan aditu direnak, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko langileak eta BEGIRA Aholku Batzordekoak (Begira, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea).

1. **Emakumeen presentzia, parte-hartze aktiboa eta erabakitzeko ahalmena sustatuko dugu**, bai hedabide bakoitzaren informazio-politika eta ildo editoriala definitzeko fasean, bai albiste izan daitezkeen gertakariak hautatzeko fasean, edukiak prestatu eta zuzentzerakoan, eta abar.
2. **Kolaborazioak egin eta argitaratzeari dagokionez, emakumeek sinatutakoak babestuko ditugu, berdintasunez**. Esaterako, ahalik eta gehien orekatu nahi da gizonetako eta emakumezko kolaboratzaileen kopurua, horiek egiten baitituzte iritzi-artikulu gehienak.
3. **Analisi politikoan aditu diren emakumeengana joko dugu, batik bat**, horrela hautsiko baitugu orain arteko joera, hots, gizonengana jotzea aditu bila. Halaber, politikaren eremuko iturriei dagokienez, garrantzitsua da emakumeen eskubide politikoak aztertzen eta sustatzen diharduten gizarte-antolakundeekin eta emakumeen antolakundeekin lotutako iturrien berri izatea eta horiek baliatzea (kontsultak egiteko baliatzen diren iturri adituak dibertsifikatzea).
4. **Informazio gehiago emango dugu hauteskunde-programetan planteatutako berdintasun-politikei buruz**. Alderdi politikoen agendei buruzko informazioetan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz egiten duten planteamendua sartuko dugu.
5. **Askotariko emakumeak eta gizonak erakutsiko ditugu politikagintzan, ahalik eta gehien**, eta saihestu egingo dugu sexuaren arabera batzuk eta besteak eremu, egiteko eta jarrera jakin batzuekin lotzea.
6. **Argazkietan eta bideoetan, berdindu egingo dugu emakumeei eta gizonari egiten zaien trataera grafikoa**, hots, saihestu egingo dugu batez ere gizonekin erabiltzea plano kontrapikatuak eta lehen planoak (plano horiek garrantzi handiagoa eta nagusitasuna ematen baitiote argazkian ateratzen denari).

7. **Sistematikoki berrikusiko dugu erabilitako hizkera, erabilera sexistak saihesteko.**
Adibidez, desagokia da maskulino edo femenino generikoa erabiltzea sexu biak izendatzeko.
8. **Berdindu egingo dugu izen eta abizenen trataera:** lehentasunez, izena eta bi abizenak erabiliko ditugu pertsonen buruz idazterakoan edo gure hedabideetan agertzen direnean. Ezin bada, izena eta lehen abizena erabiliko ditugu (kasu guztietan berdin). **Saihestu egingo dugu soilik izena erabiltzea emakumeak izendatzeko.**
9. **Berdin aipatuko ditugu emakumeen eta gizonen ibilbide profesionalari eta ikasketa-mailari buruzko datuak:** berdin deskribatuko ditugu, ahalik eta neutroen, trataera “familiarregia edo pertsonalegia” saihestuz. Ekidin egingo dugu gehiago hitz egitea emakumei eta haien familia-erantzukizunei buruz, gizonen buruz baino.
10. **Sistematikoki berrikusiko ditugu informazioak, aztertzeke ea kalifikatzaile gehiago erabili diren gizonen buruz hitz egiterakoan, emakumeen buruz hitz egiterakoan baino;** izan ere, emakumeak homogeneizatzeko joera dakar horrek.
11. **Saihestu egingo dugu irudi sexistak erabiltzea, hots, emakumeak beste pertsonaia batzuen mendeko agertzea;** gizonen mendeko, esate baterako. Gomendio hori bereziki aplikatzekoa litzateke hauteskunde-zerrendei buruzko umore-zintetan eta abarretan.
12. **Datuak sexuaren arabera bereizita emango ditugu,** biztanleriari, boto-asmoari, inkestei eta abarrei buruzko datuak ematerakoan, besteak beste. Ikertu egin behar litzateke zein iturrik ematen dituen datuak sexuaren arabera bereizita, eta datu horiek erabili behar lirateke.